



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEN
JARRAITZAILEAK
GARA
GURE PARROKIAN**

2. GAIA

GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



1. Helburu Nagusia

- Eliza, Jesusen misio bera, hau da Berri Ona hots egitea, duten jarraitzaileen elkarte bezala ezagutu.

2. Helburu Bereziak

- Jesusek, berarekin egoteko eta bere misioarekin bat egiteko elkartzen diren jarraitzaileen taldea eratzen duela ikusi.
- Elizak, bere ekintzekin, jarraipena ematen dio Berri Onaren zabalkundeari.



Idea Nagusiak

- Eliza Jesusen jarraitzaileen elkarte bezala ezagutu
- Gure elkarteak nolakoak diren ikusi eta horietan konprometitzeko eta esku-hartzeko aukera izan
- Parrokia elkartean Jesusen jarraitzaile izan, bere misioari jarraipena eman.



Ezinbesteko Lagungarriak

- Eranskinak fotokopiak.

Garrantzitsua da saioko jardunbidea ulertzeko astia hartzea eta behar izango dugun guztia aldez aurretik prestatzea

A. SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Saiorako gida Laguntzailearentzat ...

Saioa, 5 unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena. 1. urratsa
- 2. unea: Edukiaren garapena. 2-4 urratsa
- 3. unea: Bilketa eta laburpena. 5 urratsa
- 4. unea: Otoitza eta barneratzea. 6. urratsa.
- 5. unea: Familian bizitzeko. 7 urratsa



1. Unea. Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak, hasieran, aurreko saioan landutakoa gogora ekarriko du.



1. Urratsa: : Aurrera egingo dogu gure ibilbidean. Eliza, elkarte zer dan aztertu genuen eta orain hasierako elkarte haien nondik norakoak, beren esku utzitako misioaren ingurukoak, ezagutu behar ditugu eta ondoren guzti hori geure parrokia elkartean zehaztu.

Hamabien taldea haziz zihoan: apostoluen predikua eraginez, askok erabaki zuen Jesusen atzetik jotzea. Horrela, hamabien talde txikia hazi eta antolatu egin zen. Egunez egun, apaltasunez baina erabakiz, Jesusen ikusitako jokamoldea gauzatzen saiatzen ziren. Elkarte horren bizitza, akatsez josita egon arren, erreferentzia-puntu da garai guztietako Elizarentzat.

Hasierako kristau haiek taldeka elkartu ziren, elkarte txikiak eratuz. Jesusen atzetik jarraituz egiten zuten bizimoduak haridura eta miresmena sortzen zituen beren inguruan.



Ondorengo jardura egingo dugu: **"Hasierako elkarteak"** izenburua duen fitxa banatuko diegu (I. ERANSKINA). Fitxa horretan, bi idazki eta hasierako elkarte ezaugarrien laburpena jasotzen dira. Bakarka irakur dezatela eta, ondoren, talde txikitan batuta, ondorengo galderei erantzun dezagun:

- Bibliako idazkiaren zein esalditan agertzen dira hasierako elkarte ezaugarri horiek?
- Zure ustez, zein da ezaugarri garrantzitsua?



2. Unea. Edukiaren garapena

Gure parrokia elkartean, Jesusen jarraitzaile nola izan gaitezkeen zehaztuko dugu bigarren une honetan. Horretarako, bertan garatzen diren egiteko eta ekintzak berrikusiko ditugu eta, ondoren, galdera honi erantzuten saiatuko gara:

- Zein egiteko edo ekintza garatzen da gure pastoral barruti edo parrokian?
- Zein dei jaso dugu?
- Eta guk, zertan konprometitu gaitezke?



2. Urratsa: Gaur eta hemen, Elizak dei egiten digu bat eginda aurrera egin eta elkarrekin eraiki dezagun. Honako bideo hau lagungarri izan daiteke horretarako.



**Ikusteko, klik egin
irudian edo QR kodea**



Bataioaren bitartez, deia jaso dugu Elizan eraginkortasunez bizi eta jardun dezagun. Ikus dezagun zein bide dugun horretarako eta egin dezagun gogoeta horren inguruan.

Puzzlearen pieza bana (hasiera batean ez dakite zer den) emango diegu partaideei. Guztien piezak bildu, irudia osatu eta zer den asmatu behar dute (II. eranskina: Elizaren irudiaren puzzlea). Puzzlea osatu ondoren, elkarrizketan jardungo dugu beraiekin esperientziaren eta osatu duten irudiaren inguruan.

Elkarrizketa:

- Zer ikusten duzue marrazkian?
- Zer irudikatzen du?
- Nork eraikitzen du Eliza?

Laguntzailearen azalpenak:

- Guztion artean eratzen dugu Eliza -marrazkiak erakusten digunez-, puzzlea egiteko gertatu den bezala; Eliza hori askotariko pertsonen osatuta dago.
- Nahiz eta desberdin eta anitz izan, denok dugula zer eman ikustea da garrantzitsua. Horretarako, elkar ulertu behar dugu eta hasierako elkartearen idazkian agertu diren jarrerak zaindu eta gauzatu egin behar ditugu.

Laguntzailearen azalpenak:

- Espiritu Santua da Elizaren gidari eta euskarri. Bataioan jasotzen dugun Jainkoaren espiritua. Berak egiten gaitu maitatzeko gauza eta berak ematen digu ausardia besteen aurrean lekukotasuna emateko.

Irudia: (II. ERANSKINA, Elizaren irudia)





3. Urratsa: Gogora dezagun hasieran (1. Urratsean) irakurri dugun Jainkoaren Hitza (Eg 2, 1-11).

"Mendekoste-eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. Bat-batean, haize-boladarena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion eran.

Egun haietan judu jainkozale asko ziren Jerusalemen, eguzkiaren azpian diren nazio guztietatik etorriak. Burrunba hura entzutean, hara bildu zen jendea samaldan, eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien. Zur eta lu, honela zioten: «Mintzo direnok, ez ote dira denak galilearrak? Nola daiteke, bada, guretako bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzan horiei entzutea?»

Baditugu gurekin partiar, mediar nahiz elamdarrek; baita Mesopotamian, Judean nahiz Kapadozian, Ponton nahiz Asian bizi direnak ere; badira gure artean Frigia nahiz Parfiliakoak, Egipto nahiz Zirene inguruko Libia aldekoak, baita erromatarrek ere; eta denok, judu eta juduberri, kretar eta arabiar, Jainkoaren egintza miragarriak geure hizkuntzetan aipatzen entzuten diegu».

Eg 2, 11

Gogoetarako ...

- Ikasleak, Jesusen heriotzaren ostean, beldurrez zeuden, ezkutaturik. Zein jarrera dute Espiritu Santua jaisten denean?
- Hainbat lekutako jendea zegoen, baina denek ulertzen zuten elkar. Bakarrik Espiritu Santuari esker gerta daiteke hori. Nola uler gaitezke gure artean? Zein jarrera landu behar dugu?

Eta konpromisora igaroko gara, ...

Jainkoarengandik jasotako deia konpromiso jakin batean zehazten saiatu behar dugu, gure parrokia elkartean gehiago esku-hartu ahal izateko.



3. Unea. Bilketa eta laburpena

Jesusek, apostoluak aukeratu eta taldea osatu zuten. Gu katekesira gatoz, gure familia beste hainbat familiarekin biltzen da Eukaristian. Makina bat gauza egiten dogu taldean, eta taldeetako kide sentitzen gara. Guk, elkarrekin, Jesusen Elizaosatzen dugu eta, horregatik, Eliza sentitu behar dugu. Eliza ez da eraikina bakarrik, Eleiza guztiok gara. Kartela egingo dugu hobeto ulertzeko. Jesusen eliza gara:

- Otoitz egiteko biltzen garenean
- Katekesian parte hartzen dugunean
- Premian dagoen edonori (gaixoak, bakarrik daudenak, zerbait egiteko laguntza behar dutenak, e.a.) laguntzen diogunean
- Kalean Jesusen lekuko garenean (dei egin lagunei Jesus ezagut dezaten)

Jarduera: parrokiako taldeen murala

Kartulinaren erdian, parrokiaren edo PBaren argazkia itsatsiko dugu ("gure parrokia / nuestra parroquia" izenburuarekin). (III. ERANSKINA) Ondoren, parrokia/PBko talde baten izena idatzita duen paper-zerrenda bana emango diegu. Taldearen izenaren atzealdean, zer egiten duen idatziko du partaide bakoitzak.

Horretarako, saioan laguntzaile denak talde bakoitzaren egitekoa azalduko du labur-labur. Azalpenen ostean, astia emango die bakoitzak bere paperrean idatz dezan; ondoren, erdira atera eta paper-tira parrokiaren irudiaren inguruan itsatsiko dute, idatzitakoa labur-labur azalduz.

Taldeen izenak (laguntzaileak zerrenda luza dezake bere pastoral ingurua kontuan hartuta. Talde horietako bakoitzak egiten duenaren inguruko azalpen laburrak ere prestatu beharko ditu).

Hona hemen adibide batzuk:

- Familia katekesia
- Caritas
- Jesusen taldeak
- Biblia lantzeko taldea
- Osasun Pastoralta
- Liturgiarako taldea
- Ekonomia
- Familia Pastoralta
- Gaztetxo eta gazteen taldeak
- Misioak



Honela, partaideek beren parrokiako taldeak eta hauek egiten dituzten gauzak ezagutuko dituzte. Horrezaz gainera, guztiok batera Jesusen jarraitzaileen elkartea osatzen dugula sentituko dute.

4. Unea. Otoitza eta barnatzea

Saioari amaiera emateko, otoitzaldi laburra egingo dugu eta baita abestu ere:

Jauna, ikas dezadala elkartean bizitzen.
Horrela jokatzeara eta besteekin bat egitea eskatzen didazu.
Ikus dezadala, zure ikasleen antzera,
elkarte izatea besteen alde eta besteentzat bizitzea,
zure jarraitzaileekin elkartzeara dela.¹



**Entzuteko, klik egin
irudian edo QR kodea**



5. Unea. Familian bizitzeko



- Etxean, familian, guraso eta seme-alabek zein taldetako kide diren eta bertan zein konpromiso duten gogora dezakete: entrenamenduetara, entseguetara (abesbatza, dantza, e.a.) joan, eskolara, katekesira, Familia Eukaristiara... joan.
- Bigarrenik, parrokian zein talde dagoen eta bakoitzak zer egiten duen aztertu.
- Eta azkenik, familia bezala parrokiara hurbildu eta bertako talderen bat edo beste ezagutzeko konpromisoa har dezatela.

♦.....

¹ 3. mailako Familia Katekesi pastoralako gidatik hartuta. 1. gaia. Eliza bezala jarraitzen dugu Jesusen atzetik. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

I.Eranskina. Hasierako elkarteak

Hasierako kristau elkartearen bizitza

Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik. Mundu guztia izuturik zegoen, apostoluek egiten zuten hainbat egintza harrigarri eta mirarirengatik. Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen. Egunero bildu ohi ziren tenpluan,

Eg 2, 42-46

Dena denena zuten


Fededun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten. Apostoluek indar eta eragin handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren testigantza. Jendeak oso estimatuak zituen; izan ere, ez zen haien artean behartsurik, zerren lurrik edo etxerik zutenek, dena saldu eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.

Eg 4, 32-35

Bat eginik bizi ziren eta ondo uztarturik zeuden taldean

Ez zegoen inor premian, dena denentzat zeukaten-eta. Apostoluen irakaspenak jarraitu eta Jesusi buruzko haien lekukotasunak entzun egiten zituzten. Otoitz egiteko eta Eukaristia ospatzeko biltzen ziren. Elkarri adore ematen zioten eta pozik bizi ziren. Jesusen atzetik jarraitzeko konpromisoa hartzen zuten, askotan inguruabarrak aurka bazituzten eta Berri Ona iragartzea zail egiten bazitzaien ere.

II. Eranskina. Elizaren irudiaren puzzlea



III. Eranskina. Nuestra parroquia/Gure parrokia

